Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

198

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 18koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2008. urtean zehar Ikastetxe Nagusiei emandako diru-laguntzak jakinarazteko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, 2008ko apirilaren 15eko Aginduaren bidez (2008-05-12ko EHAA, 88 zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxe Nagusiei diru-laguntzak emateko deialdia onartu zuen. Deialdi honetako laguntzen xedea hauxe da: Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren bosgarren xedapen gehigarrian jartzen zaizkien egitekoak betetzeko laguntzak ematea ikastetxe nagusiei; hona egitekook: unibertsitateko ikasleei egoitzak eskaintzea, ikasle horien kultura- eta zientzia prestakuntza sustatzea eta beren jarduera unibertsitateko komunitatearen zerbitzutara jartzea.

Deialdi hori Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2008ko ekainaren 30eko Ebazpenak ebatzi zuen, eta interesatu bakoitzari jakinarazi zitzaion; bada, emandako diru-laguntzen berri eman behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikuluan eta deialdi honetako arau erregulatzaileetako 10.3 artikuluan xedatutako betetzearren.

Horregatik guztiagatik, honako hau,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxe Nagusiei emandako diru-laguntzak jakinaraztea -Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko apirilaren 15eko deialdi-aginduaren babesean eman dira diru-laguntza horiek (2008ko maiatzaren 12ko EHAA, 88 zk.)-; ebazpen honen eranskinean datoz xehetasunak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 18a.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea,
IBONE AMEZAGA ARREGI.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

198

RESOLUCIÓN de 18 de diciembre de 2008, de la Viceconsejera de Universidades e Investigación, por la que se hacen públicas las ayudas concedidas para los Colegios Mayores, ejercicio económico 2008.

Por Orden de 15 de abril de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se aprobó la convocatoria de ayudas para los Colegios Mayores de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV número 88, 2008-05-12). Estas ayudas tienen por objeto apoyar la tarea que los Colegios Mayores llevan a cabo en cumplimiento de las funciones que les encomienda la disposición adicional quinta de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, de proporcionar residencia a los estudiantes universitarios y promover la formación cultural y científica de éstos, proyectando su actividad al servicio de la comunidad universitaria.

La convocatoria fue resuelta por Resolución de 30 de junio de 2008, de la Viceconsejera de Universidades e Investigación y notificada individualmente a los interesados, por lo que, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 49.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y artículo 10.3 de las normas reguladoras de esta convocatoria procede dar publicidad a las subvenciones concedidas.

Por todo ello,

RESUELVO:

Artículo único.– Hacer públicas las ayudas concedidas para los Colegios Mayores de la Comunidad Autónoma del País Vasco al amparo de la convocatoria aprobada por Orden de 15 de abril de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación (BOPV número 88, de 12 de mayo de 2008), según detalle del anexo de esta resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de diciembre de 2008.

La Viceconsejera de Universidades e Investigación,
IBONE AMEZAGA ARREGI.

ERANSKINA / *ANEXO*

2008KO DEIALDIA / *CONVOCATORIA 2008*

IKASTETXE NAGUSIETARAKO DIRU-LAGUNTZAK
AYUDAS PARA LOS COLEGIOS MAYORES

Zenbatekoa / *Importe:* 130.526,00 euro/*euros*

Zk. *Núm.*	Ikastetxe nagusia *Colegio mayor*	Herria *Localidad*	Lurraldea *Territorio*	Onuraduna *Beneficiario*	Zenbatekoa (euro) *Importe (euros)*
1	Ayete	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	Fundación Horizonte	21.136,00
2	Bidealde	Bilbao	Bizkaia	Fundación Horizonte	20.332,00
3	Pedro Biteri eta Arana	Arrasate	Gipuzkoa	Mondragon Unibertsitatea	30.527,00
4	Deusto	Bilbao	Bizkaia	Deustuko Unibertsitatea *Universidad de Deusto*	31.868,00
5	Miguel de Unamuno	Bilbao	Bizkaia	*Universidad del País Vasco* Euskal Herriko Unibertsitatea	26.663,00
				Guztira/*Total*	130.526,00